

AITA SEBASTIAN MENDIBURU-KOARI

BERE ERIOTZAREN LENBIZIKO EUNTEAN,



Zure izen ona gaur berritzen da Euskal-Errian
 Koroï galantaz agerturikan gure aurrían,
 Ta euskaldun léyal guztiyak daude gaur zoratúrik
 Zure birtúte eta doaiak ezagutúrik.
 Danak diote chit zeradéla prestu ta azkárta,
 Zure lanákin goitu dezúla euskera zárta,
 Milla itz-edérrez gozó ta estiro apaindurikan
 Eta libúru oso bikáiñez orniturican.
 Euskaldun óna, kristau fiñ eta fedez betéa,
 Izdun edérta, izkribalári berdiñ-gabéa,
 Zure seméak gaurko egunéan zaituzte agurtzen
 Ta erramu lórez zure burúa dute koroitzen.

Mundura danak ekartzen degu lege gogorra,
 Eriotzari ordain zenion zuk zere zorra;
 Zure anima Zeru alaira joantzan berríro
 Bere Egillea ikusi nairik aurkéz garbiro,
 Baña emen bean gelditu zaigu zure oroipena
 Eta eriotzak indarrrik ez du iltzeko aomena.
 Eunki bat joan da, ¡ez dio ajolik! gerore aurrera
 Euskera bizi dediñ artean biziko zera,
 Izanik beti izar galant ta dizdizariya
 Nai dutenéntzat ikasi gure izkunz eztiya,
 Aiñ aberatza, aiñ otseztia eta gozóa
 Dirudiyela Zeruban bertan sortutakóa.

Ikus ditzazu, ¡O Mendiburu! zure semeak
 Oiarzun artan nola dabilzan pozez beteak
 Zeru goiraño jaso nairikan gaur zure izena,
 Mundu guziyan zabaldu naye zure aomena;
 ikusi zazu zure lur maite Euskal-Erriya,
 Biotz-biotzean penak izanik, festaz jantziya
 Zure eunteko mugaldi auše otseztitzeko
 Eta mereziya dezun fama zuri emateko.
 Biur zazkizu, bada, begiyak gure artera,
 Lagun gaitzazu jira gaitean lege zarrera,
 Sendoturikan bearra degun gure fedean
 Ta euskaldun denak elkarganako naitasunean.

JOSÉ MANTEROLA.

